

Kaixo, Leonor! Egun on.

Esther naiz, Gasteizkoa, eta aurten berrogeita hamar urte beteko ditut.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizut egiten duzun saioarengatik. Lagun batek esan zidan orain dela lau hilabete Euskadi Irratia Faktoria saioan profesional batek aholku-programa zuela. Harrezkero, beti entzuten dut zure saioa. Oso lagungarria iruditzen zait, etxea hobeto edukitzeko. Ezin da ukatu entzuleoi asko laguntzen digula. Baita oso aholku onak ematen dituzula ere.

Azalduko dizut zein den nire arazoa. Kontua da, nahiz eta etxean zure aholkuak kontuan hartu, terrazan arazo larria daukadala. Gasteizen euria asko egiten duelako, terraza askoz gehiago erabiliko dugulako esperantzarekin, orain dela hamar urte terraza ixtea erabaki genuen. Tamalez, urteak joan ahala, biltegi bat bihurtu da. Gauzak horrela, gustatuko litzaidake udarako prest jartzea. Hau da, eguzkiaz gozatu estilo eta erosotasun ukitu batekin, zure laguntzari esker. Esan beharrean nago ez naizela kapaz nondik hasi jasotzen eta antolatzen. Zer egin nezake?

Beno, Leonor. Ziur nago irratsaio honetan erantzunik egokiena jasoko dudala. Aukera paregabea ematen digu Euskal Irratiak, saio honen bitartez, gure kezkak edo arazoak konpontzeko.

Bukatu nahi dut berriro eskerrak eman ez talde osoari, batez ere zuri, Leonor, zure aholkuagatik.

Adeitasunez, agurtzen zaitut.

Esther Landa Antia.